

Sekuentzia Didaktikoak eta hizkuntzen curriculum: teoria eta praktika: hitzaurrea

90eko hamarkadaren inguruan berritze prozesu garrantzitsu bati eman zitzaion hasiera hezkuntzan eta horren isla izan zen Hezkuntza Sistema Orokorren Antolaketa-urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoa, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza birantolatzen zituena, LOGSE izenarekin ezagunagoa dena. Hizkuntzari dagokionez, irakaskuntzaren ardatza hizkuntzaren erabilera izan behar dela adierazten da bertan. Ondorioz, geroxeago argitaratzen den Lehen Hezkuntzako oinarrizko curriculumean (1992) ikasleek ulertzen eta ekoizten ikasi beharko lituzketen testuetan jartzen da arreta eta lau eduki multzo zehazten dira testu horien erabilera-esparruarekin lotuta: hizkuntza elkarren arteko harremanetan, hizkuntza giza komunikabideetan, hizkuntza literaturan eta hizkuntza irakaskuntzan.

Eguneratze eta egokitze prozesu horretan hizkuntza gaitasunean jartzen da indarra eta hizkuntzaren hiru dimentsio azpimarratzen dira: hizkuntzak pentsamenduaren antolatzaile bezala jokatzeko duen papera, irakaskuntzarako funtsezko tresna gisa duen garrantzia eta komunikazio tresna bezala duen zeregina, eta horrenbestez beste eduki gehienak, guztiak ez esatearren, ikasteko tresna gisa duen garrantzia. Hortik abiatuta, hainbat aholku ematen dira irakaskuntza programak prestatzeko, besteak beste: hizkuntzaren aniztasunaren garrantzia kontuan hartzea, hizkuntzaren erabilerari garrantzia ematea kodearen eta arauen ikasketaren gainetik, eta hizkuntzaren giza dimentsioa eta eguneroko komunikazio egoerak kontuan hartzea, besteak beste.

Horrek guztiak irakaskuntzan erabiltzen diren metodologiaren egokitzapena eta eguneratzea eskatzen du eta ahalegin horretan jardun du eskolak azken urteotan. Aldaketa eragiteko ikasleen partehartze aktiboagoa aldarriatu da eta egin-kizun edo zeregin zentzudunetan oinarritutako ariketak eta ikaskuntzak porposatu dira materia guztientzat; atazak, proiektuak,... metodologietan lekua hartu duten terminoak dira. Hizkuntzaren kasuan, bideak ezberdinak izan dira ikasketaren objektua lehen hizkuntza edo bigarren hizkuntza izanda. Atazek eta zereginen protagonistismo handia hartu dute bigarren hizkuntzaren irakaskuntza-ikas-kuntza prozesuetan, batez ere, helduen irakaskuntzari dagokionez eta eskolatik kanpo ematen den irakaskuntzari dagokionez. Lehenengo hizkuntzari dagokio- nez, hizkuntzen irakaskuntza-ikas-kuntzaren aldaketaren zutabe nagusia izan da Sekuentzia Didaktikoen (SD) erdua, hizkuntzaren irakaskuntza testuaren inguru- an antolatzeko eta testuak lantzeko proposatu zena.

2007an indarrean jartzen den Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumaren V. eranskinean azaltzen dira, arlo batean bilduta, Bigarren Hezkuntzako Euskara eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Atzerriko Hizkuntza irakasgaiak, eta bertan adierazten da hitzez hitz:

Eta honen lau ikasturteetako ikaskuntzak mailakatzeko, honako irizpide hauek hartuko dira kontuan:

Diskurtso-trebeziak ikasleen hizkuntza- eta kultura-esperientziatik hurbilago edo urrunago egotea, testuak barne-antolamenduari dagokionez konplexutasun gehiago edo gutxiago izatea, eta testuak jasotzeak eta egiteak dituzten helburuen aniztasuna.

Hizkuntzen curriculum integratu bat proposatu da, ikasleek bi hizkuntza ofizialetan eta, gutxienez, atzerriko hizkuntza batean komunikatzeko gaitasuna lortzea helburu duena, eta, horretarako, honako printzipio hauek bete behar dira:

- Hizkuntzen ikaskuntzaren oinarria inklusioa da; hau da, ikasle guztiei elea-niztasuna oso-osorik garatzeko aukera eman behar zaie, bakoitzaren ama-hizkuntza zein den kontuan hartu gabe.
- Hizkuntzen irakaskuntza erabilera oinarritu behar da; izan ere, hizkuntzak gizartean erabiliz ikasten dira, eta komunikazio-premia pragmatikoek bideratzen eta laguntzen dute kodea behar bezala ikasten.
- Hizkuntzen irakaskuntza komunikazio-ikuspegian oinarritu behar da; hau da, ikasgelak komunikazio gune pribilegiatu bihurtu behar dira, ikasleek hainbat komunikazio-jardueratan parte-hartze eraginkorra izateko aukera ematen dutenak.
- Hizkuntzen irakaskuntza hizkuntzekiko eta hiztunekiko jarrera positiboetan oinarritu behar da, eta kontuan izan behar da hizkuntzek gizarte-harremanetan eta pertsonen emozioen garapenean duten garrantzia.

Printzipio horiek direla eta, komunikazio-proiektu esanguratsuek gidatutako ikaskuntza-prozesua kontuan hartzen duen metodologia landu behar da, hainbat tipo eta generotan sailkatutako **testuak oinarrizko komunikazio-unitate** bihurtzen dituen; horrez gainera, metodologia horrek ikaskuntza komunikazio-lan bat lortzeko **sekuentzia didaktikoetan** antolatu beharko du, eta prozedura-edukiei lehentasuna emango die. Hau da, «egiten jakitea» «jakite» hutsari gailenduko zaio.

Metodologia horrek, aldi berean, irakasleek ikasleen komunikazio-gaitasunaren garapen-mailari buruz dituzten itxaropenak dibertsifikatzea dakar, bai eta proposamen egokiak eta hainbat ebaluazio-irizpide ezartzea ere; horrela, ikasle bakoitzak ahalik eta gehien ikas dezan lortuko da. (218. alearen Gehigarria, 229. orrialdea).

Ikusten dugun bezala gure erkidegoko curriculumean esplizituki azaltzen da testu-generoen lanketa eta sekuentzia didaktikoaren metodologia. Eta horiekin batera, oinarrizko baldintza gisa aurkezten dira hizkuntza bat baino gehiago ikas-irakatsi beharra eta hizkuntzaren izaera transbertsala.

Roulet-ek (1999) aspaldi esaten zuen bezala hizkuntzen irakaskuntzaren erronka da alderdi ezberdinak -linguistikoak, testuzkoak eta egoerazkoak- kontuan hartuko dituen hizkuntzaren errepresentazio diskurtsibora iristea. Irakaskuntza horrek, halaber, bi zutabe izan beharko lituzke: ikasleek ikasteko dituzten ahalmenak eta irakasleen eta irakasteko bitartekoen ekarpen pedagogikoa. Eginkizun horretarako baina, benetako egoeretan erabiltzen diren testuak eta diskurtsoak irakasteko alegia, tresna egokiak behar dira, eta egun dugun lanabes garrantzitsuena sekuentzia didaktikoarena da.

Sekuentzia Didaktikoaren inguruan egindako praktikak eta esperientziak askotarikoak izan dira, besteak beste, lehenengo hizkuntza irakasteko sekuentziak diseinatzeari ekin zaio, atzerriko hizkuntzak lantzeko metodologiak landu dira, hizkuntzen eta edukien irakaskuntza bateratuan urratsak emateko proposamenak egon dira...

Ale honetan hizkuntzen curriculumean azaltzen diren jarraibideetara hurbildurik egin diren zenbait proposamen eta esperientzia ekarriko ditugu. Gehien bat, gure erkidegoan egin diren lanak aurkezten badira ere, hemendik at egindako lan batzuk ere ekarri ditugu. Era berean, Hezkuntza Curriculumean ikusi duguna unibertsitate aurreko edo handik kanpoko ikaskuntza-irakaskuntzari begirakoa baldin bada ere, egun unibertsitatean ere nabarmena da irakas metodologia berrietan murgiltzeko premia ikas-irakaskuntza aktiboa eta partze handiagokoa lortze aldera. Zentzu horretan, bilduma honek unibertsitatean eta bereziki irakaslegoaren prestakuntzan egin diren zenbait lan biltzen ditu gero ikusiko den bezala.

Goian ikusi dugun bezala curriculumean Sekuentzia Didaktiko moduko nozioak aipatzen dira, baina nozio hori modu ezberdinetan uler daiteke. Gure ikuspuntutik, sekuentzia didaktikoaren planteamendurik zehatzena eta eraginkorrena Genevako unibertsitatean¹, bertako irakas sisteman frogatuz ikerkuntza eta esperimetaketa sakonaren bitartez garatu dutena da.

Ale honen lehendabiziko artikuluan Larringanek eta Idiazabalek aipatu sekuentzia didaktikoaren teoriara hurbilduko gaituzte. Haren ezaugarriak azalduko dituzte eta didaktikarako lanabes gisa duen garrantzia erakutsiko digute. Hasteko, didaktikak teknologia ez ezik, zientzia moduan ere bereganatzen ari den izaera eta horretarako egin den ahalegina azpimarratzen dute. Egindako aurrerapausuak Genevako Unibertsitateari zor zaizkio neurri handi batean, beste nozio batzuekin batera bertan sortu baita Sekuentzia Didaktikoaren nozioa propietate teoriko eta epistemologiko zehatzak dituen lanabes gisa. Hori guztia azaltzearekin batera, sekuentzia didaktikoaren deskribzioa eta azalpen argigarria eskaniko digute egileek, hizkuntza ikas-irakasteko sekuentzia adibide baten haritik.

1. Soilik bi lan aipatzearren, hauek lirateke derrigorrezko erreferentziak: Bronckart (1996/2004), oinarri teorikoetarako, eta Dolz, Noveraz & Schneuwly, 2001, proposamen praktikoa zehatzen bilduma legez. Aldizkari honetako artikuluetan aurkitu daitezke erreferentzia gehiago, bereziki Aebyren lanean eta Larringan eta Idiazabalenean.

Oso ezberdina da Pia Kiviaho-Kallioren eskutik datorkigun lana. Egile honek proiektuetan oinarritutako esperientzia bat dakarkigu. Finlandiako Porvoo Unibertsitatean eskaintzen den Turismo Graduan atzerriko hizkuntza, zehazkiago, ingelesa, ikas-irakastea du helburu. Abiapuntua hizkuntzen eta edukien irakas-kuntza bateratua da, hizkuntza betiere bere testuinguruan, modu autonomoan eta komunikazio egoera errealean bideratzea nahi delarik. Unibertsitate horren eremuan gelatik kanpoko jarduean egiten den ikasketari garrantzi handia ematen zaio eta irakaslearen esku hartzearen gainera, ikasleek egiten dituzten praktikak dute lehentasuna. Kiviaho-Kalliok hurbilbide kualitatibo batetik aztertzen ditu lanak, tartean, ikasleek hizkuntza proiektu errealean bitartez ikasteari buruz dituzten pertzepzioak aztertuz; aurkezten duen kasuan narrazioan oinarritzen dira. Bestalde, lan egiteko modu honek ikasleentzat dituen onurak azpimarratzen dira artikuluan.

Sekuentzia Didaktikoaren nozioa Genevako Unibertsitatean sortua izanik, ugariak dira horren karian egindako lanak ere. Haien artean, lehen aipatu bezala, Dolz eta besteren (2001) "S'exprimer en français. Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit" metodoa. Sandrine Aeby, Genevako Unibertsitateko irakaslea denak, ikas-irakas metodo hori nola baliatzen den aztertzeko asmoarekin, eskola jarduerak grabatu eta gelan egiten diren testuen lanketarako egiten diren aukeretan, hartzen diren erabakietan eta sekuentzien gainean egiten diren aldatketetan jartzen du harreta. Egileak erakusten du, besteak beste, komunikazio egoerak eta helburuak proiektu jakin baten barruan zehazten diren arren, gero gelan garatzeko moduak nahiko ibilbide lausoa egin dezakeela; era berean, eskolak emateko orduan oszilazioak daudela egiteko modu tradizionalaren eta komunikatiboaren artean. Lan interesgarria da Aebyrena barrutik egindako azterketa kritiko erdugarri gisa.

Eleaniztasun marko baten barruan egindako esperientzia batzuk ekartzen dizkigute Roberto Mielgok, Begoña Ociok eta Jone Ocerinjauregik, Bilboko Begoñako Andra Mari Irakasle Eskolako (EUMBAM) irakasleek. Zenbait eskoletan, egoera esperimendal batetik abiatuta, hizkuntza ezberdinetan egiten diren sekuentzia didaktikoen emaitzak aztertzen dira: argudiozko gutunak idazteko orientabide berezirik jaso ez duen kontrol talde bat eta sekuentzia didaktikoaren ereduarekin ikasi duen talde bat alderatzen dira, beti ere talde bakoitzean bi hizkuntza ezberdinetan lan eginez. Eskoletako irakasleei Sekuentzia Didaktikoaren erabilera erakusteko prestakuntza nola antolatu zen, eta haren barnean sortutako sekuentzia didaktikoak praktikara nola eramán ziren eta lortu ziren emaitzak aztertzen dituzte. Ondorio gisa, hiru alderdi azpimarratzen dituzte: gramatikaren lekua berrinterpretatu beharra, irakasleak hizkuntzaren alderdi sozio-diskurtsiboan prestatzeko premia, eta azkenik, hizkuntzaren ikuspegi diskurtsiboak eta hizkuntza ezberdinen tratamendu bateratua eskolan ezartzeko behar den denbora luzea.

Hurrengo esperientzia UPV/EHUko irakasle diren Ines Garcia-Azkoagaren eta Diaz Leire de Gereñuren eskutik datorkigu. Lan hau ere irakasleen prestakuntza esperientzia baten oinarritzen da, eta besteak bezala, ardatza hizkuntzaren irakaskuntza baldin bada ere, badu partikularitasun bat, eskola eremu jakin batean kokatzen dela, alegia, Curriculumua Norbanakoari Egokitzeko (CNE) programen

eremuan. Hezkuntza premia bereziak (HPB) dituzten ikasleen komunikazioarako trebetasunen garapena xede izanik, sekuentzia didaktikoetan oinarritutako lan-keta bat proposatzen zaie irakasleei. Irakasleek sortutako sekuentzia didaktikoen analisi zehatza egiten ez bada ere, egindako lanak aukera ematen du ikasle multzo horrekin lana egiteko orduan sortzen diren kezka hobeto ezagutzeko, merezi duen harreta azpimarratzeko eta arlo horretan jardun duten irakasleen prestakuntza egokiagoa bideratzeko garrantzia.

Jaione Ibarak, hau ere Bilboko EUMBAM eskolako irakasleak, bertako ikasleekin landutako hizkuntza proiektu baten emaitzak aurkezten dizkigu, zehazkiago, testu-genero bat (zuzendariari gutuna) lantzeko prestatutako sekuentzia didaktiko baten esperientzia. Egileak aurretestuak eta azken testuak alderatzen ditu eta, sekuentziaren ebaluazio gisa, testu hobeak lortzeko tailerretan indartu beharreko alderdi zenbait azpimarratzen ditu, besteak beste, izenburuaren lan-keta, hartzailaren irudia, gutunaren xedea adierazteko modu ezberdinen lan-keta, argudioen mailakatzea, eta modalizazio-mekanismoen erabilera.

Lehen Hezkuntzako 6. mailan debate soziozientifikoa lantzeko sekuentzia didaktikoa aurkezten digute Mondragon Unibertsitateko (MU) Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) irakasle diren Sainz Osinagak eta bere lankideek. Gizartean bizirik dauden galderak mahairatzeko eta herritar kritikoak prestatzeko lanabes gisa aurkezten da debatearen sekuentzia didaktikoa. Hasteko, egileek debate mota honen beharraren eta eskolan duen interesaren justifikazioa egiten dute, testu generoak duen interesetik, eta ikuspegi sozio-eraikitzailea nahiz diziplinartekotasuna biltzen dituen ekarpena den aldetik. Ondoren, debate sozio-zientifikoaren ezaugarriak azaltzen dituzte eta jarraian, hura lantzeko sekuentzia didaktikoaren xehetasun zenbait ematen dute. Egileen esanetan, horrelako lan batek testuliburuetan antzematen den hutsunea beteko luke eta harreman pertsonal eta sozialetarako abantaila izango litzateke. Halaber, sekuentzia didaktikoa gelan gauzatzerakoan egiten den lanaren azterketak duen garrantzia ere gogoratzen digute.

Josune Zabalak ahozko hizkuntzaren lanketa bideratzeko Mintzola Fundazioak Tolosan abian jarri duen proiektu interesgarri baten berri ematen digu. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei zuzenduta diseinatu ziren sekuentzia didaktikoen gaineko xehetasun zenbait eskaintzen digu: hautatutako testu-generoak, zehaztutako helburuak, sekuentzia bakoitzean proposatzen den esku hartzea, eta abar. Eskolen testuingurua kontuan hartzeko egiten den diagnostikoa-rekin hasten da lana. Egileak, eskoletan zegoen materialen azterketarako, helburu didaktikoen hautaketarako eta sekuentzia didaktikoak sortzeko emandako urratsen azalpena egin eta gero, sekuentzia horien deskribapena egiten du.

Eneritz Garrok eta bere lankideek (MU, HUHEZI) ere ahozko hizkuntza lantzeko proposamen bat aurkezten digute. Pratika gogoetatsurekin eta sekuentzia didaktikoarekin bat egin eta unibertsitatean ahozko aurkezpen formalak lantzeko dispositibo bat antolatzen dute egileek. Dispositibo horren deskribapena eta esperientziatik ateratako hainbat ondorio biltzen dira bertan. Hauxe da, besteak beste, ikusten dutena: testu-genero baten lanketa sistematikoak aurrerapausoak ekartzen ditu komunikazio egoera hobeto interpretatzeko orduan, testua egitu-

ratzerakoan eta gaien arteko loturak egiterakoan. Ordea, berbazkoa ez den komunikazioari dagozkion alderdietan hobekuntza ez da hain nabarmena. Bestalde, egileek diotenez kontuan hartu beharko litzateke ikas-irakas prozesuaren gertutasunak izan lezakeen eragina. Hala eta guztiz ere sekuentzia didaktikoaren erabilia eta gogoetan oinarritutako lanketaren baliagarritasuna azpimarratzen dute.

Bildumari amaiera emateko, aurreko ikastetxe berean (HUHEZI, MU) eskaintzen den Balioen Hezkuntza eta Kulturarteko Hezkuntza izeneko materia irakasteko sekuentzia didaktiko baten berri ematen digute Madinabeitiak eta bere kideek. Irakasle Ikasketen bigarren mailan eskaintzen den materia bat da eta materia horren gai jakin bat jorratzen du aipatu SDak. Nolanahi ere, sekuentzia didaktikoa beste era batera ulertzen da hemen; kasuetan oinarritutako metodologia erabiltzen dute. Helburu bati lotuta, egitura jakin bat duten sekuentzietan antolatzen dute materia. Ondorio aipagarrienak bi dira: ikasleek metodologiari egin dioten harrera ona eta irakurketa arretatsuak duen garrantziaz ohartarazi izana.

Didaktikan oro har, eta bereziki Hizkuntzaren irakaskuntzan aurrerabide zehatzen premia geroz eta nabarmenago ageri da. Garai batean hizkuntza baten irakaskuntzaz arduratetik bi/hiru hizkuntza gutxienez ikas-irakatsi beharra sortu zaio eskolari. Lehen eskolara, neurri batean behintzat, ikasia ekartzen zen hizkuntza zen didaktikaren helburua. Gaur ez. Egia da hizkuntzak eskolatik kanpo ere ikasten direla, baina ez denak eta ezta neurri berean ere. Bestalde, gizartearen hizkuntza eskakizunak zehatzagoak dira; garai bateko gutun edo idazki arrunt gutxi batzuetarako eskatzen ziren arau mugatuak urruti eta ahaztuak daude. Gaur, ahazko eta idatzizko erabilera anitzak ziurtatu behar ditu oinarritzko eskolak ikasle guztientzat eta gutxienez bi/hiru hizkuntzetan. Hizkuntza Didaktikaren erronka handia da. Genevako lankideak aitzindari izan dira didaktikaren teknologia edo ingeniarietza deiturikoan proposamen zehatzak egiten. Sekuentzia didaktikoa da teknologia didaktiko horren ekarpen nabarmenetakoa. Jakina, teknologia guztiak bezala egokitu beharrekoak dira, eta guri elebi edo hirurekin lan egin beharrak eskakizun bereziak sortzen dizkigu. Geuk asmatu eta garatu beharrekoak izango dira, beraz, gure sekuentzia didaktikoak. Besteak beste, bide horretan emandako urrats batzuen erakusgarri izan nahi luke lan bilduma honek.

BIBLIOGRAFIA

- BRONCKART, J.-P. (1997). *Activité langagière, textes et discours : pour un interactionisme socio-discursif*. Paris: Delachaux et Niestlé. [Tra. es.: *Actividad verbal, textos y discursos. Por un interaccionismo sociodiscursivo*. Madrid: Fundación Infancia y Aprendizaje, 2004].
- DOLZ, J.; NOVERRAZ, M. & SCHNEUWLY, B. (2001). *Séquences didactiques pour l'oral et pour l'écrit. Volume IV*. Bruxelles: de Boeck & Larcier.
- ROULET, E. (1999). *La description de l'organisation du discours*. Saint-Jean-de-Braye: Didier.

Araudiak eta legeak

Ley Orgánica 1/1990 de 3 de octubre, de Ordenación del Sistema Educativo General.

175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa, 2007ko azaroaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuta.

Eusko Jaurlaritza: *Curriculum Garapenerako Dekretua: Lehen Hezkuntza*. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, Gasteiz, 1992.

175/2007 DEKRETUA, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum sortu eta ezartzekoa.

Gobierno Vasco: *Diseño Curricular Básico: Enseñanza Primaria*. Ed. Departamento de Educación del Gobierno Vasco (Vitoria-Gasteiz), 1992.

Ines Garcia-Azkoaga